


BALIO PROPOSAMENA

ONAN LOW COST enpresak gizartearen bigarren mailako beharrak asetzen saiatzen den saltokia da. Denda honetan produktu edo zerbitzu bitxiak salgai daude, pertsona askoren bizimodua hobetzeko nahian. Honetan datza gure enpresaren izaera berritzailea. Hau da, normalean beste supermerkatuetan eskuragai ez dauden produktuak saltzean, prezio merkeagoan.



Gure izaera berritzaileak bezeroak erakartzen ditu. Gure produktuen diseinuak oso originalak dira eta ez dira maiz ikusten. Izenak esaten duen bezala, gure saltokietan dauden produktuak poltsiko guztien eskura dauden prezioetan salgai egongo dira. Hau esanda, gure dendan erosteko prest egongo liratekeen pertsonak produktu berriak ala ez komunak nahi dituzten pertsonak dira. Beste bezero mota izango da prezio baxuan produktuak erosi nahi dituen norbait.

Alde batetik, online enpresetan dauden produktuak ez bezala, gure produktuak kalitatekoak dira eta modu onean daude, ez dute akatsik. Online saltzen diren produktuak gehienetan biltegietan gordeta daude, eta garraiatzeko orduan apurtu ahal dira edo kalitatea galdu ahal dute. Horretaz aparte, interneten bidez erostean, produktuaren argazkiak baino ez dituzu ikusten, hau da, ez dakizu benetan nola den. Hau guztia gure saltokian ez da gertatzen. Gainera, arazo bat egonez gero, berehala arduratzen gara horretaz.

Beste aldetik, gure enpresaren beste abantailetakoa bat, seguruenik garrantzitsuenak, denda fisiko bat gurea da. Honen alde ona premiaz zerbait behar izanez gero, berehala aurki dezakezula da. Hortaz, ez duzu produktu hori iritsi arte itxaron behar. Online dendei dagokienez, beste alde bat da gure produktuek ez dutela bidalketa-gasturik.

Gure produktuak aukera oso onak dira opariak egiteko, produktuen aniztasuna dela eta. Prezio baxuak ere beste faktore bat izan dezakete opariak gure saltokian erosteko.

Gure dendan salgai dauden produktuak, lehen esan bezala, produktu oso bitxiak eta originalak dira. Ideia bat egiteko, gure saltokian dauden produktu batzuk hurrengoak dira:

- **Daltonikoentzako betaurrekoak:** Produktu hau aukera perfektua izan dezake arazo honekin bizi behar diren pertsonentzat. Betaurreko hauek laguntza handia eskaintzeko prestatutak daude, koloreak behingoz bereizteko, eta bizitza normal bat izateko.



- **Arropa edota osagarri bitxiak:** Gure saltokian, eguneroko produktuak ez dira salgai dagoen guztia. Arropa eta osagarriak ere saltzen ditugu, oso originalak eta bitxiak. Perfektuak dira berritu nahi dute pertsonentzat, edo nortasun handia dutenentzat.

- **Bakarrik egiten den ohea:** Produktu hau eguneroko bizitza errazteko oso lagungarria izango da. Izara ohe gainean ipintzean, botoi bat sakatuz gero, bakarrik egingo da. Ez dago izara mugitzeko beharrik, bere kabuz tolesten delako, ohearen forma hartzen. Ohe honen beste eginkizun bat, bere edreroiaren ezaugarri bitxia da. Edredoia adaptatzeko aukera dago, beroa ala hotza emateko, zuk aukeratu duzun tenperaturaren arabera.

